



HITZARMENA

SOPELAKO UDALA ETA

“ZIPIFAMILIAK” GURASO ELKARTEA – ZIPIRIÑE ESKOLA PUBLIKOA (SOPELA)
CIF G-48146492

ZER FINANTZATZEKO:

- Atezaina
- Ludoteka
- Sexu Hezkuntza programa
 - Igeriketa
- Bulego eta administrazio gastuak
 - Bi urteko gelako aux.
 - Goizeko haurtzaindegia
 - Jarduerak



SOPELAKO UDALA
ETA “ZIPIFAMILIAK” GURASO ELKARTEA – ZIPIRIÑE ESKOLA PUBLIKOA
(SOPELA) ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

Sopela, sinadura elektronikoan agertzen den datan.

BILDUTAKOAK

Alde batetik, GURUZNE CARRASSON TORRONTEGUI andrea, Sopelako Udaleko alkate-udalburua

eta bestetik, IKER ELEJABARRIETA PARALIZABAL jauna, “ZIPIFAMILIAK” GURASO ELKARTEA – ZIPIRIÑE ESKOLA PUBLIKOA (SOPELA) elkartearen BURU moduan, jakinarazpenak jasotzeko helbidea Sopelako Trokabide kalea, 4, duena, NAN. [REDACTED] zenbakiduna.

ESKU-HARTZAILEAK

Guruzne CARRASSON TORRONTEGUI andrea, Sopelako Udaleko alkate-udalburua, Udalaren izenean eta legezko ordezkari jarduten duena, Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat.

Iker ELEJABARRIETA PARALIZABAL jauna, ZIPIFAMILIAK” GURASO ELKARTEA – ZIPIRIÑE ESKOLA PUBLIKOA (SOPELA) elkartearen burua, G-48146492 IFZ zenbakiduna, elkartearen izenean eta ordezkari jarduten duena. Elkarteak Sopelan helbidea du.

Esku-hartzaileek elkarri legezko ahalmena aitortzen diote HITZARMEN hau egiteko, eta elkar hartuta ondoko hau.

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- Alderdi biek, hitzarmen honen bidez, Sopelako udalerrian hezkuntza, kultura eta kirola sustatu nahi dutela.

BIGARRENA.- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 22.2.a) artikuluan ezartzen denaren arabera, toki-erakundeen aurrekontu orokorretan izen eta guzti aurreikusten diren diru-laguntzak zuzen-zuzenean eman ahal izango dira, eta hitzarmenak izango dira izendun diru-laguntzak bideratzeko ohiko tresna.



HIRUGARRENA.- Sopelako Udalaren 2024ko aurrekontuan gehienez 31.000,00 euroko izendun diru-laguntza jasota dago “AMPA ZIPIRIÑE”ren alde.

Horregatik guztiagatik, formalizatu egiten da hitzarmen hau, ondoko hitzarkinak dituen.

HITZARKINAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA

Hitzarmen honen helburua da Sopelako Udalak ZIPIFAMILIAK” GURASO ELKARTEA – ZIPIRIÑE ESKOLA PUBLIKOA (SOPELA) elkartearen aldeko diru-laguntza emateko baldintzak arautzea, diru-laguntza horren bidez laguntza eman nahi baita elkartearen ohiko jardueratik datozen gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- PROGRAMA

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 2024rako jardueren memoria, 82.840,00 euroko aurrekontua duena, “Atezain” zerbitzua, “ludoteka” zerbitzua, “Sexu-Hezkuntza” programa, “igeriketa” zerbitzurako laguntzailea, “bulego eta administrazio” gastuetarako, “bi urteko ikasgelarako laguntzailea”, goizeko haurtzaindegia eta jarduerak kontratatzean datza.

Aurkeztutako aurrekontutik (82.840 euro) aurrekontu osoa onartzen da, eta partida hauetan dirulaguntzaren % 50eko zehazten da (Atezaina, 3.000,00 €; Ludoteka, 1.500 €; Sexu Hezkuntza programa 3.250,00€, igeriketa, 400,00 €; bulego eta administrazio gastuak, 3.250,00 €). Bi urteko gelarako laguntzaileen kasuan, goizeko haurtzaindegia eta jarduerak ehunekoa % 33koa da.

Beraz, onartutako programa 82.840,00 eurokoa da, honako taula honen arabera, eta programa hori justifikatu egin behar da, hitzarmen honen zazpigarren klausularen arabera:

	Partida	Aurkeztutako aurrekontua	Onartutako aurrekontua	Dirulaguntzaren ehunekoa	Dirulaguntza
1	Atezaina Conserje	6.000€	100%	50%	3.000€
2	Ludoteka zerbitzua Servicio de Ludoteka	3.000€	100%	50%	1.500€
3	Sexu hezkuntza Educación sexual	6.500€	100%	50%	3.250€
4	Igeriketa/ Natación	800€	100%	50%	400€
5	Bulego eta material gastuak Gastos de oficina y administracion	6.500€	100%	50%	3.250€
6	2 urteko gela pertsonala Auxiliar aula 2 años.	26.500€	100%	33%	8.650,90€
7	Goizeko haurtzaindegia Guarderia	20.000€	100%	33%	6.528,98€
8	Jarduerak/ Actividades	13.540€	100%	33%	4.420,12€
	Total			82.840,00€	31.000,00€



HIRUGARRENA.- FINANTZAZIOA

Diru-laguntzaren zenbatekoa **31.000,00** eurokoa da.

Hitzarmen honetan lagundutako edozein ekintzarentzat jasotako edozein laguntza edo beste diru-laguntza jasoko balu, idatziz jakinarazi beharko dio egoera hau elkartek Sopelako Udalari. Diru-laguntza hau bateragarria izango da erakundeak estatuko edo nazioarteko beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jaso ditzakeen beste batzuekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez badute eta gainfinantzaketarik eragiten ez badute.

Ordainketari dagokionez, Hitzarmena sinatzerakoan, diru-laguntza guztia ordainduko zaio elkarteari, zeren eta Sopelako Udalak emandako diru-laguntza hau beharrezkoa da elkartearen ekintza hauek burutu ahal izateko. Guzti hau, diru-laguntzen Udal araudiak bere 18. artikuluaaren bigarren paragrafoarekin jasotakoarekin adostasunean.

LAUGARRENA.- MUGAK

Bigarren hitzarkineko partida bakoitzari dagozkion diru laguntzen zenbatekoak diruzko gehieneko mugak dira. Hala ere, gerora sortutako beharrak direla eta entitateak uste badu hitzarmen honetan aurreikusitako helburuak hobetu daitezkeela zenbateko horiek aldatuz, ehuneko 20raino gehitu litezke **onartutako aurrekontuaren** zutabean agertzen diren zenbatekoak —ehunekoa aplikatuta, diru laguntza ere neurri berean handituko litzateke—, **betiere gehikuntza hori, konpentsatuta badago zerekin eta diruz lagundutako partidetan igotzen den zenbatekoaren adinako jaitsierarekin**, ezin baita gainditu jasotako diru laguntzaren euro kopuru osoa.

Aldaketa onartu ahal izateko, entitateak honela jokatu beharko du:

- Diruz lagundutako partiden batean onartutako aurrekontuaren %0,1 eta %10 bitarteko goranzko aldaketak diruz lagundutako entitateak berak erabaki litzake, berak bakarrik, betiere aurreko paragrafoan zehaztutako baldintzak betetzen badira.
- %10etik gorako aldaketetarako, Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen baimena beharko da, betiere instrukzio organoak aldeko txostena eman ondoren.

Elkartek idatziz jakinarazi beharko dio Sopelako Udalari ea beste edozein diru laguntzarik edo laguntzarik jaso duen hitzarmen honen xede den jarduera finantzatzeko.



BOSTGARRENA.- BETEBEHARRAK ETA PRINTZPIOAK

- a) Sopelako Udalari jakinarazi beharko dio elkarteak hitzarmen honen bidez finantziatutako edozein ekintzarako beste diru-laguntza bat edo beste mota bateko laguntza ekonomiko bat jaso izan balu.
- b) Elkarteak euskara erabili beharko du bere komunikazio eta dokumentu publikoetan. Argitara ematen dituzten publizitate-elementu guztiek EAEko hizkuntza ofizial bietan idatzita egon beharko dute; eta antolatzen dituzten jardueretan, bermatu egingo da hizkuntza biak bertan egotea.
- c) Elkarteak genero-berdintasunaren aldeko ekintzak sustatu eta garatu beharko ditu, bai eta nolanahiko bereizkeria saihestu ere.
- d) Elkarteak eta bere kideek Udalaren irudia errespetatu eta sustatu beharko dute.
- e) Elkartearen betebeharra izango da erabilitako instalazioak zaintzea eta instalazioen mantenimenduan laguntzea, bai eta instalazioetan zerbitzuak ematen dituzten langileak errespetatzea ere.
- f) Jarduerak eraginkortasunez garatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzea.
- g) Elkarteak, bere kudeaketan eta hitzarmenaren izenpetzaileekiko harremanetan, gardentasun-irizpideak erabiliko ditu.
- h) Elkarteak lortutako finantzabidearen eta dituen baliabideen neurriko jarduera egin beharko du.
- i) Elkartearen gain egongo dira elkartean diharduten langileen lan eta zerga-arloko beharkizunak. Horretarako, Sopelako Udalak, aurrekoa betetzen dela egiaztatzeko, behar den informazioa eskatu ahal izango dio elkarteari.
- j) Diruz lagundutako elkarteak erantzukizun zibileko aseguruia kontratatu beharko du jarduerak eragin litzakeen erantzukizunak estaltzeko.

SEIGARRENA.- JARDUNEN JARRAIPEN BATZORDEA

Hitzarmen honen jarraipena egiteko, dagokion batzordea eratuko da, honela osatuta: Alkatea, edo berak eskuordetzen duen pertsona; eta elkarteak izendatzen duen ordezkari bat. Hona hemen Jarraipen Batzordearen eginkizunak:



a) Hitzarmen honetan aurreikusitako jardueraren gauzatze normalaren jarraipena egitea. Irizpideak eta moduak zehaztuko ditu informazioa partekatzeko eta bakoitzaren konpromisoak egoki betetzeko.

b) Kasu bakoitzean behar diren tramiteak arin egiteari traba jartzen dioten oztopoak kentzen laguntzea.

d) Hitzarmen honen ondoriozko jarduerak betetzen direla bermatzeko behar diren neurriei buruzko txostena egin eta neurriok proposatzea.

e) Hitzarmena interpretatu eta egikaritzeko sor litezkeen arazoak ebaztea.

Jarraipen Batzordearen funtzionamendu-prozedura, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen II. Kapitulua 3. Atalaren 1. Azpiatalean azaltzen da, bertan jasota baitago kide anitzeko organoen araubidea.

ZAZPIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

Elkarteak, diruz lagundutako jarduera amaitu eta beranduenik 2023ko martxoaren 31an, justifikazio kontu erraztua aurkeztu beharko du, 887/2006 EDaren 72. artikulua arabera; artikulua horretan arautzen da nola justifikatu behar diren 60.000 eurotik beherako diru laguntzak.

Kontuak ondoko dokumentazio hau eduki beharko du:

- Memoria: egindako jardueraren memoria xehatua. Memoria honetan Udal diru-laguntzarekin ordaindutako ekintza edo gastu partida bakoitza epigrafe bat bezala agertuko da. Hauetako epigrafe bakoitzaren barruan burututako ekintza bakoitza ondo deskribatuko da, eta aurreko urteen aldean aipagarriak diren edo berritasunen bat dakarten aspektu guztiak agertuko dira. Baita ere, elkarteak ekintza hobetzeko proposatzen dituen azalpenak, edo nahi duen beste edozein gauza agertu daiteke epigrafe bakoitzean.

- Diru-sarreraren eta gastuen balantzea:

- Diru-sarrerak: Diru sarreraren zerrenden barruan edozein kontzeptutan lortutakoak sartuko dira: bazkideen kuotak, diru laguntzak —publiko zein pribatuak—, jasotako edozein zenbateko —material salmenta (pegatinak, pinak eta abar), zozketak...

- Gastuak: Jardueraren ondorioz edukitako gastuen erlazioa —Memoriarekin agindu bezala- diru-laguntzarekin ordaindutako ekintza edo gastu partida bakoitza epigrafe bat bezala agertuko da.

- Ordaindutako gastuen jatorrizko frogagiriak, programaren zenbateko osora heldu arte. Frogagiriok fakturak edo froga balioa duten bestelako dokumentuak izango dira, betiere



merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak izan eta baliokideak badira. Frogagiriak diru-laguntzarekin ordaindutako partiden arabera egongo dira sailkatuta.

Xedapen honen lehen paragrafoan xedatutakoarekin adostasunean, Udaletxean kokatutako Udal Erregistroan aurkeztu beharko ditu jatorrizko frogagiriak, balantzearekin eta Memoriarekin batera, eta justifikazio-kontu erraztua osatzen duen beste edozein dokumentazioarekin batera. A4 formatu estandarraren forma ezberdina duten gastu frogagiriak A4 formatuan aurkeztu beharko dira.

Elkarteak aurkeztutako jatorrizko gastu frogagiriak itzultzea eskatuko balu, hilabeteko epea izango du Udal administrazioak itzulpen hori gauzatzeko, gastu frogagiriak, bere kasuan, zigilatu eta gero.

- 100,00 euro baino gehiagoko gorako ordainketak, banketxearen eserlekuarekin bitartez justifikatu beharko dira.
- Diruz lagundutako jarduera dela eta argitaratu diren foileto, kartel, liburu, bideo, CD-Rom eta horrelakoen ale bana aurkeztu beharko dira.
- Hirugarrenei egindako kalteen (pertsonak edo gauzak) babesean, egindako erantzukizun zibileko polizaren kopia, eta dagokion ordainagiriaren kopia.

ZORTZIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA

Udalaren kutxara itzuli egin beharko da jasotako diru laguntza, bai eta ordaintzen denetik itzultzea erabaki arte sortutako berandutze korrituak ere, Sopelako Udalaren diru-laguntzen kontzesioa arautzen duen araubide orokorraren 19. artikuluan jasotako edozein kasuan (2016ko abenduaren 23ko 243 zenbakia).

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA INTERPRETATZEKO ARAUBIDEA

Hitzarmen honek administrazio-izaera dauka, eta administrazioko antolamendu juridiko ezaugarriaren arabera interpretatu eta garatuko da.

Aurreko Seigarren hitzarkinak bere e) letran ezarritakoarekin bat, Jarraipen Batzordeari dagokio hitzarmen honek edo bere garapenak ekar litzakeen interpretazio-arazoak ebaztea. Hori horrela ere ezin bada ebatzi, araubidetzat joko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan xedatutakoa.



HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA

Hitzarmena izenpetzeak ez du berarekin ekarriko esku-hartzaileen eskumenei uko egitea edo eskumenok aldatzea. Izan ere, esku-hartzaileek hitzarmenaren arabera konpromisoen erantzukizunak baino ez dituzte beren gain hartuko.

Hitzarmena izenpetzen denetik sortuko ditu ondorioak, eta une horretatik bertatik esku-hartzaileak behartuta daude hor adostutakoa betetzera. Eta hitzarmenak iraungo du harik eta bertan jasotako beharkizunak kitatu arte, edo, bestela, 2023ko abenduaren 31ra arte.

HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENA AZKENTZEA

Aurreko hitzarkinean aipatutako indarraldia amaitzen denean edo hitzarmena suntsiarazten denean, azkendu egingo da hitzarmena. Esku-hartzaileetako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, beste esku-hartzaileak ahalmena izango du hitzarmena zorrozki bete dadin galdatzeko edo hitzarmena suntsiaraz dadin eskatzeko.

Eta ezarritakoarekin ados daudela frogatzeko, bertaratuek izenpetu egiten dute dokumentu hau, ale bitan, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA

“ZIPIFAMILIAK” GURASO ELKARTEA
– ZIPIRIÑE ESKOLA PUBLIKOA
(SOPELA)

Guruzne Carrasson Torrontegui

Iker Elejabarrleta Paralizabal